

7. PLANAREN INGURUMEN ERAGINAK GAINBEGIRATZEKO PROGRAMA

7.1. KONTROL HELBURUAK

Egin behar den gainbegiratze-programaren funtsezko helburua da jarraipen-metodologia egoki bat proposatzea, IIBE azterketan antzeman eta baloratutako inpaktuak murrizteko eta/edo desagerrarazteko neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen ezarpen-maila eta eraginkortasuna baieztatzeko.

Honako alderdi hauek barne hartzen ditu aipatutako helburu nagusia garatzeko metodologiak:

- Aplikatu daitezkeen iraunkortasun-faktore nagusiak identifikatzea.
- Iraunkortasun-faktoreen adierazleak zehaztea.
- Dokumentuan adierazitakoa betetzen dela kontrolatzeko arduradunaren administrazio-figura ezartzea.

7.2. JARRAIPENAREN XEDE DIREN SISTEMAK, ALDERDIAK EDO ALDAGIAK IDENTIFIKATZEA.

EAEko ingurumen-bilakaeraren eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian zehaztutako helburuekiko bat-etortzearen jarraipena egiteko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak 22 adierazle aukeratu ditu. Adierazle horien bilakaerak iraunkortasunaren esparruan egindako aurrerapenak erakusten dizkigu, betiere zehaztutako konpromisoekin lotuta egin diren jardueren arabera.

Goierriko eremu funtzionaleko LZPak aipatutako dokumentuko helburuak bere egiten dituenaz, eta LZPko jarduerak eragin ditzaketen ingurumen-faktoreak (airea, geologia, hidrologia, lurzorua, biodibertsitatea, paisaia, nekazaritza eta arrantzako jarduerak eta lurraldeko gizarte-sistema, zentzu zabalean) ondo ordezkaturik daudela kontuan hartuta, 22 adierazleen artetik honakoak aukeratzeko proposatzen da:

- Uren kalitatea.
- Airearen kalitatea:
- Biodibertsitatea.
- Lurzoruak.
- Hondakinak.
- Hiri-ingurumena.
- Administrazioaren inplikazioa.

7.3. ADIERAZLEEN JARRAIPENA EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK ZEHAZTEA

Lehen azaldutako arrazoiaketa oinarrian hartuta, Eusko Jaurlaritzak ezarritako indizeak eta erreferentziak onartzen dira. Ondorengo lerroetan adierazi dira alderdirik esanguratsuenak:

1. Uren kalitatea.

Ibaien ingurumen-egoeraren ebaluazioan –uren kalitate fisiko-kimiko biologikoa ibai-ibilguetan eta ondoko erriberetan ebaluatzen da-, hainbat indize erabiltzen dira, hala nola **BMWP indizea**, **“E” indizea eta landare-estalkiaren kontserbazio-indizea**.

Ondorengo taulan ikus daiteke lehenengo indizea kontuan hartuta urak lortu duen sailkapena; egoera biotikoa erakusten du aipatutako indizeak.

Mota	Balioa	Esanahia
1	>120	Ur oso garbiak
2	101-120	Ur ez-poluituak edo kalteberek aldatu ez direnak
3	61-100	Kritikoa: poluzioaren efektuak agerikoak dira
4	36-60	Ur poluituak. Kalitate txarra.
5	16-35	Ur oso poluituak.
6	<15	Ur larriki poluituak.

Ondorengo taulan ikus daiteke, bestalde, eutrofizazio-indizea kontuan hartuta lortu den uren ingurumen-egoeraren sailkapena:

E INDIZEA (%)	EZAUGARRIAK
E1. Hipereutrofia	Ur larriki poluituak.
E2. Poluzioa	Ur poluituak.
E3. Eutrofizazioa	Giro eutrofizatua
E4. Ologosaprobio	Giro egonkorra
E5. Ultraoligasaprobio	Giro heldua eta oso heterogeneoa

Adierazlea: BMWP indizeen balioa.

Ibaiertzak.

Landare-estalkiaren kontserbazio-mailak, ibai-sistemen inguruko zuhaitz-estalkiaren egoeraren berri ematen digu. Jarraian adierazi da indize hori neurtzeko modua:

Landare-estalkiaren kontserbazioa

0. Banakako isolatuak, zuhaixka-estratuaren garapena; gizatiartze-maila altua.

1. 3 estratuak daude (zuhaitzak + zuhaixkak + belarra); estaldura ertaina-altua.

2. 3 estratuak daude (zuhaitz-estratua da nagusi); estaldura oso altua.

Hala ere, egindako proposamenen eta proposatutako neurrien inpaktua ezagutzeko, eragindako azalera baloratzea da adierazlerik zuzenena.

Adierazlea: eragindako ibai-ekosistemen %.

2. Airearen kalitatea.

Zuzeneko neurketa da airearen kalitatearen egoera neurtzeko mekanismo fidagarri bakarra.

Ingurumen-legeriaren ikuspegitik, **mugako balioak** bereizten dira alde batetik, eta denbora-tarte jakin batzuetan ezin dira gainditu (poluitzaile bakoitzarekin erlazionatuta daude), eta **balio gidariak** bereizten dira bestetik. Balio baxuagoak dira azken horiek, hartzaileen babesa epe luzera bilatzen dute eta batzuetan gaindi daitezke.

Azkenik, erreferentziazko balioak daude. Balio hauek erabiltzen dira larrialdi-planak lortzen direnean.

Airearen kalitatearen indizea SO_2 , NO_2 , PM_{10} eta O_3 poluitzaileak oinarrian hartuta kalkulatzen da.

1. Adierazlea: Urtean mugako balioa gaintzen den aldi kopurua.
2. Adierazlea: Oinarri-urtearekin alderatuta, poluitzaile bakoitzaren kasuan guztizko emisioen aldaketa.

3. Biodibertsitatea eta paisaia

Adierazle hau lau aldagairen gehigarri bat bezala definitu da.

1. Habitaten zatitzearen bilakaera.
2. Habitaten arteko konektibitatearen bilakaera.
3. Espezie adierazleen populazioen bilakaera.
4. Paisaia adierazleen aldaketa-mailaren bilakaera.

Osatzen ari den indize bat da. Esandakoaz gain, azpimarratzekoa da ebaluatutako jokaerak antzemateko denbora-tarte zabalak behar direla, hortaz, bien bitartean, honakoa proposatzen den adierazlea:

Adierazlea: Koniferoen betetzearen portzentajea, baso-estalkiarekiko, eta baso natural autoktonoen eta erriberakoen betetzearen portzentajea.

4. Lurzoruen kontsumoa

Lurzoruaren Artifizializazioaren Intentsitatearen Adierazleak neurtzen du artifizializatutako azaleraren hazkundera, estaldura motaren edo lurzoruaren erabileraren arabera (hiri-azalera, industriakoa, azpiegiturak, eta abar), eta azalera ez-artifizializatuaren murrizketari buruzko datuak ematen dizkigu.

Adierazlea: betetzearen % esparruko erabilera/azalerako.

5. Hondakinak.

Hondakinak sortu eta kudeatzeko beharrarekin erlazionatutako alderdiak aztertu dira.

Hondakinen sorrera-adierazleak erakusten du tokiko entitateek jasotako hiri-hondakinen guztizko kantitatea eta sortutako industria-hondakin arriskutsuen kantitatea.

Hiri-hondakin gehienak etxean sortzen dira, baina, horiez gain, zerbitzu, bulego-eraikin, erakunde eta udal-kudeaketako enpresa txikietan sortutako hondakinak barne hartu behar dira.

Kontuan hartzen diren hondakin arriskutsuak Europako Hondakinen Katalogoan (EHK) arriskutsutzat sailkatutako hondakinak dira bakarrik.

Adierazlea: Hiri-hondakinen sorrera, kg/per capita eta hondakin arriskutsuak tonatan.

Kudeaketaren adierazlea islatzeko, hiri-hondakin desberdinen bilketak egiten dira (beira, papera-kartoia, ontziak, pilak, etxe-tresnak, eta abar), eta kontuan hartzen da hondakindegian utzitako hiri-hondakinen kantitatea eta balorizatu direnekin alderatzen da (birziklapena). Halaber, balorizatutako industria-hondakin arriskutsuen portzentajea desagerrarazi edo kudeatu ez direnekin alderatzen da.

Adierazlea: Hondakinen balorizazio-portzentajea/hondakinen guztizkoa

Hondakin arriskutsuen balorizazio-portzentajea/hondakinen guztizkoa

6. Hiri-ingurumena

Hiri-ingurumeneko ingurumen-egoera aztertzeko hainbat adierazle aurkituko ditugu. “Dobris txostenaren” arabera (55 adierazle barne hartzen ditu), oinarritzko hiru kontzeptu-talde bereizi daitezke:

- Hiri-ereduen adierazleak. Bertan barne hartzen dira biztanleria-adierazleak, hiri-eremuen azalera eta osaera, gutxiegi erabiltzen diren eremuak eta hiri-berritzea, hiri-mugikortasuna, eta abar.
- Fluxuen adierazleak (ura, energia, material eta produktuak eta hondakinak).
- Kalitatearen adierazleak (ur eta airearen kalitatea, akustikoa, etxebizitzena, espazio berdeetarako iresgarritasuna, eta abar).

Lehen aipatutako adierazleak, Biodibertsitatea eta Paisaia izan ezik, azken bi multzotan sartu daitezke.

Lehenengo taldearen adierazle gisa, toki-mugikortasunarekin lotutako adierazlea erabiltzeko proposamena egin da: toki-mugikortasuna garraio-moduen arabera banatzea.

Adierazlea: Garraiobide desberdinen bidaiariak-km.

Hiri-birkualifikazioa eta –birsorkuntza sustatzeko proposamenek duten garrantzia kontuan hartuta, LZPak adierazle berri bat proposatzen du aztertu eta leheneratu diren hiri-aldaketa eta –leheneratze eremuekin lotuta.

Adierazlea: Kokapen kopurua eta azalera (Ha-tan).

Bestalde, lur poluituak berreskuratzeko lanen bilakaera kontrolatzeko proposamena egin da.

Adierazlea: Kokapen kopurua eta azalera (Ha-tan).

7. Administrazioaren inplikazioa.

Administrazioak iraunkortasunaren esparruan hartutako konpromisoak islatzeko eta, zehazkiago, xede horrekin LZPak berak proposatutako helburuak lortzeko helburuarekin, beste adierazle batzuk aurkeztu dira.

Adierazleak: Toki Agenda 21: Toki Agenda 21 prozesuetan dauden udalerriak

Ingurumena babestera zuzendutako gastu publikoa: ingurumenera zuzendutako gastu publikoa, eremu funtzionaleko gastu publiko guztiarekiko.

7.4. GAINBEGIRATZE PROGRAMA.

Neurri babesleak eta zuzentzaileak beteko direla ziurtatzeko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzan Goierriko eremu funtzionaleko LZPa idazteko eta bere jarraipena egiteko eskumena duten sailei dagokie horien jarraipena egitea. Horretarako, kanpo-aholkularitzara jo daiteke eta, kasu horretan, lurralde-plangintza, arlokoa zein orokorra, lantzeko fasean esku hartuko da gutxienez eta, egokitzen jotzen bada, udal-teknikari batengana joko da garapen-plangintza, proiektu eta obren fasean eta ingurumen-neurriak martxan jartzean.

Jarraipenaren xedea da, erabakiak hartzeko fasean ingurumen-aldagaia barne hartzea, horretarako iraunkortasun-irizpideen eta ingurumen-balio eta –baldintzatzaileekin lotutako neurrien kontrola eta berrikuspena egingo delarik (IIBE azterketaren 6.3.1. – 6.3.2. atala). Arreta berezia jarriko da garapen-plangintza idazteko fasean, hartara, aipatutako aldagai guztiak etorkizuneko antolamenduan kontuan hartuko direla ziurtatzeko.

Bestalde, obrak egiten direnean, jarraipen teknikoaren bitartez ziurtatuko da proiektuak izapidetzean erabaki daitezkeen neurriak betetzen direla.

Edozein modutan, lehen aipatutako sailek memoria bat landuko dute urtero. Memoria horretan, LZParen betetzea eta arloko lurralde-plangintzan eta udaleko hirigintzakoan duen eragina baloratzeko, ingurumen-aldagaien bilakaera barne hartuko du, bai eta proposatutako neurrien eragina ere. Halaber, antzemandako desorekak saihesteko hartu beharreko neurri berriak definituko dira.